



ZALDIBIA

2023-2027

UDAL GOBERNU-PLANA



SARRERA

Esku artean duzun liburuxka hurrengo hilabete eta urteetan Zaldibia eraldatzen jarraitzeko plana duzu. Plan honek bide-orri bat marrazten du, gure herria herrigintzaren kulturatik egina, komunitateren zaintzan oinarritua eta herri bizigarria izan dadin, jasangarritasunean eta berdinaletasunean.

Ez dugu bidea hutsetik hasi, baina legealdiaren 4 urteko iraupenak, erronkak, pausoak eta mugariak marrazteko baliogabeak. Eta plan honek horixe jasotzen du, 2023-2027 aldiaren baitan gauzatu edota abiatu nahi diren egitasmo eta helburuen zerrenda.

2023ko maiatzeko udal hauteskundeetara aurkeztutako herri programan, aurreko legealdian abiatutako prozesu eta proiektuetan, eta udal-langile, hautetsi edota herri-eragile ezberdinen lankidetzan jasotzen ari garen ekarpenetan du jatorria dokumentu honek. Udaleko jarduna eta lana ordenatzeko bokazioa duen lan dokumentua da, lau-urteko honetan erreferentziazko lan euskarria izango duguna.

Ez da dokumentu itxi bat, ordea, ekarpenetara irekia dagoen plan bizia da. 100 egitasmo proposatzen ditu, Zaldibiaren eraldaketan sakontzen jarraitzeko. Horregatik, lan dokumentu bat den heinean, elkarlanerako gonbidapen bat ere bada: bidea elkarrekin, zaldibitar guztiekin, egiteko gonbidapena, sarea osatuz eta elkarlanean gure indarrak biderkatuz.

Ioritz Berra Juaristi
ZALDIBIAKO ALKATEA



Lotura honetan dokumentua
digitalki eta elebitan.

*Aquí el Plan de Gobierno
2023-2027 en castellano.*



Lau erronka, oinarri bat: HERRIA

Zer datorkigu burura erle edo inurriez pentsatzean? Lana, taldea, ELKARLANA. Senak agintzen die nola jokatu, erle bat bakardadean galbidera kondenatua baitago. Geuk ere gure bamean, egungo mundu honek indibidualismora eramaten bagaitu ere, badakigu bakarrik ez garela ezer.

“Bakarrik bazoaz azkarrago iritsiko zara, lagunduta bazoaz urrunago.” Hala dio afrikar jatorriko esaera zaharrak.

Garai aldakorak bizi ditugu, aldaketa handiko eta azkarreko garaiak, garai erabakigarriak mundu mailan. Gerra hotsak, kapitalismo basatia, patriarkatua, eskuin muturra, klima aldaketa. Erlauntza bamean hobe ote geundeken...

Baina hori ez da aukera bat, horrela amaierara kondenatuko genuke geure burua. Eta gure kondena bakarra esperantzarena da. Munduaz jabetu eta erronka globalei tokitik, txikitik heldu. Elkartu eta antolatu, erlauntzatik atera, inguruan izan badiren lore ederren bila eta atzera berriz erlauntzan babestu.

Elkarlan eta antolaketa horretan, LAU ERRONKA identifikatu eta xehetu ditugu, gure herriaren ardatz gisa:

1. Komunitate eta zaintzaren lanketa sakona egin, elkar harreman anitz eta berdinzaleak helburu.
2. Bizitza duinak biltzen dituen herri bizigarria izan, trantsizio ekosozialean urratsak emanez.
3. Herrigintzaren Kultura berreskuratu eta indartu, euskal kultura eta partaidetzaren kulturari, eta ekintza komunitarioari bide eginez.
4. Antolakuntza eta lana: udalgintza herrigilea eta elkarlan-sarea oinarri



KOMUNITATEA ETA ZAINITZA

Feminismoa, Aniztasuna, Zaintza,
Herritarrak eta Ongizatea

MISIOA/ERRONKA

Herritarra izango du oinarri eremu honek. Feminismoa ardatz hartuta, elkarren arteko harreman partekideak, anitzak, hezitzaileak eta osasuntsuak sustatuko ditu, komunitatea indartzea eta zaintzaren demokratizazioa helburu.



PROIEKTUAK/EKIMENAK

FEMINISMOA

01. Formakuntza feminista-jabekuntza eskola sustatu, bai udal barne mailan, baita herri mailan ere.

02. Emakume eta gizonen berdintasunerako bi-urtekako planak osatu eta garatu, Berdinbideanen bide-laguntzarekin.

03. Zaldibian indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei arreta emateko erakundeen arteko koordinazio eta arretarako tokiko I. protokoloa onartu eta martxan jarri.

04. Herritar eta eragileen kontzientzia handitu eta indarkeria matxistaren inguruko hausnarketarako elementuak eskaini, prebentzioa bultzatzeko.

05. Jai giroan indarkeria matxisten kontrako sentibilizazio kanpainak burutu.

06. Zaldibiako emakume guztien ahalduntzea sustatu, prozesu eta ekimen desberdinak martxan jarri, espazioak eskaini, emakume adinduen ahalduntze pertsonal eta kolektiboan arreta berezia jarrita.

07. Emakumeek orokorrean aisian eta kirolean duten parte hartzea handitzeko asmoz urtero Ttipi Ttapa morea edo bestelako ekintzak egiten jarraitu.



ANIZTASUNA

08. Zaldibiako Harrera integralerako sistema finkatu eta gauzatu, herriko eragileen kolaborazioarekin.

09. Komunitatea indartzeko guneen sorrera bultzatu ekimen ezberdinen bidez, herritar anitzen arteko harremanak eraginez.

10. Kulturaniztasunaren inguruko lanketa egin herri mailan eta eskualdean.

11. LGTBI+ kolektiboarekiko eta pertsonetikiko sentsibilizazioa sustatu eta herriko diagnostikoa egin.



ZAINTZA

12. Zaintza eta etxeko lanetan emakumeek duten ardura aitortu eta lan hauek partekatzea, murriztea edo parekideagoa izatea sustatu.

13. Herriko pertsona helduen zaintza beharrak eza-gutu, diagnosi egoki bat eginez eta ateratako ondorioak aztertu eta hortik abiatuta lan leerro berriak bideratzen hasi.

14. Etxez etxeko zerbitzua indartu eta zabaltzeko bideak aurkitu eta baliabideak jarri, zaintza sare komunitarioa sustatuz.

15. Emakume zaintzaileen bizi baldintzak hobetzeko tresnak eskaini.



HERRITARRAK ETA ONGIZATEA

16. Komunitate eta zaintza eremuan lanean diharduten eragileekin elkarlana sustatu: Etxekonekok, Aske, Haurreskola-Lardizabal Eskola, Guraso Elkarte, Beti Gazte,...

17. Herriko adinekoentzako elkargune eta dinamikak sustatu, Beti Gazte Elkartearekin harremanetan.

18. Gizarte laguntzak bideratzen jarraitu eta herritarren egoera ezberdinei erantzuten eta jarraipena egiten ahalegindu.

19. Osasun zerbitzuekin harreman jarraia izan, herritarren osasun integrala helburu.

20. Zaintza eta Osasun zerbitzuak bilduko dituen azpiegitura/espazio berri baten lanketa abiatu.

21. Eragile sozialekin eta munduko herrialdeekin elkartasun proiektuak sustatu eta herritarrengan elkartasun jarrerak bultzatu.

22. Herriko jaioberrien harrera sistematizatu eta haien familientzat elkarguneak sustatu.

23. Herriko haur, nerabe eta gazteen errealitateak ezagutu, beharrei erantzun eta parte hartzea sustatu.

24. Herriko haur, nerabe eta gazteak sentsibilizatu berdintasunean, genero ikuspegian eta kulturartekotasunean.

25. Eskola komunitatean sexu heziketa saioen baitan genero rolen inguruko gogoeta egitea bultzatu.

26. Udal ordezkari politikoengan eta udal langileengan genero ikuspegia txertatzeko formakuntza eskaini.

27. Udal barnean eta eragileetan berdintasuna eta aniztasuna zehar-lerro gisa lantzeko neurriak eta egiturak sortu.



BIZITZA DUIN ETA BIZIGARRIEN HERRIA

Herri antolamendua, Zerbitzuak, Ingurumena,
Elikadura, Lana, Etxebizitza, Energia, Mugikortasuna

MISIOA/ERRONKA

Herri bizigarria izan nahi dugu eta horretarako beharrezko ditugun gaitan jardungo dugu eremu honetan, bizitza merezi duten bizitzak eta burujabetza helburu.

Herri
Bizigarria



PROIEKTUAK/EKIMENAK

MUGIKORTASUN JASANGARRIAGO BATERANZKO URRATSAK

28. Gipuzkoako Foru Aldundiak Zaldibia-Ordizia arteko bide-gorria gauzatu dezan lan egitea.

29. Zaldibiako Mugikortasun Plana onartu eta gauzatea, plaza ingurua oinezkotuz, trafikoan moldaketak eginez eta ibilgailuentzako aparkalekuak optimizatuz.

30. Ibilgailuentzako karga-puntu elektrikoa martxan jartzea.

PLAZAREN PROIEKTUA ERREALITATE BIHURTUZ

31. Jolas-eremu berria eta Beti Gazte inguratuko duen eremua eraiki.

32. Eserlekuak eta bestelako altzariak eraikitzen joan, auzolana ardatz.

33. Elizako saloien egoera landu, jatorrizko estalpeen berreskurapenari eta estalpe beharri erantzun.

ppi
ppia

TRANTSIZIO ENERGETIKOA

34. Udal eraikinetan energiaren auto-sorkuntza puntu gehiago jartzea.

35. Zaldibian Energia Komunitatea sortzeko prozesua burutzea.

36. Jasangarritasun Energetikorako udal planeko ekintzak gauzatzea, kontsumoaren jarraipena eginez eta hau murrizteko neurriak hartuz.

37. Lardizabal Eskolako eta Herri Antzokiko isolamendu eta berokuntza-sistemak hobetzeko bideak aztertu.

HERRIKO NATUR INGURU ETA BALIABIDEEN ZAINZA ETA KUDEAKETA

38. Baso publikoaren eremua zabaltzea eta bertako espeziez birlandatzea.

39. Herri-mendiko lurren kudeaketa plana osatzea.

40. Landa lurren digitalizazioa abiatzea.

HERRI ANTOLAMENDUA ETA HIRIGINTZA

41. Etxebizitza beharrari erantzutea, bereziki hutsik daudenak mobilizatzeko ahalegina eginez. Horretarako erakunde eskudunekin harremanak abiatzea.

42. Hirigintza Plan Orokorra garatzea: Urtesabel-Azpi, Urtesabel eta Biloreko Plan Partzialak bideratzea.

UDAL ORDENANTZAK

43. Ordenantza fiskalen lanketa sakona egitea, tasa eta hobari sistema progresibotasunaren ikuspegitik landuz.

44. Espazio publikoan kokatutako terrazei buruzko ordenantza, txabolen ordenantza, etxeko animalien ordenantza eta obra txiki/haundi bereizteko ordenantza berrikustea.

45. Ordenantza berriak onartzea: trafiko ordenantza, hilerriko zerbitzua arautzeko ordenantza, udal ondasunak erabiltzeari buruzko ordenantza, herri bideen ordenantza.



HERRIKO UR-SAREA

46. Artxabalgo ur-filtratze sistemari jarraipena egitea.
47. Geratzen diren fibrozementuzko azken zatiak ordezkatzeta.
48. Goroskindegiko ur-biltegian hobekuntza lanak egitea.

HONDAKINEN KUDEAKETA

49. Hondakinen sorrera ekidin eta berrerabilpena sustatzeko bitartekoak jartzea eta sentsibilizazioan sakontzea.
50. Ondo birziklatzeagatik hobariak ematen jarraitzea.
51. Auzo-konposta proiektuan sakontzea Sasieta Mankomunitatearekin batera.
52. Herrian ondutako konposta, erabiltzaileen artean banatu, etxeko, baratzeko edo nekazal-erabilerarako, zikloa itxiz.

HERRI MANTENUA ETA BALIABIDEAK

53. Herri-gune eta udal eraikinetako mantenu eta garbiketa egokia bermatzeko baliabideak jartzea.
54. Udal ardurako errepideen eta bide bazterren mantenua hobetzea.

ZERBITZUAK, ELIKADURA ETA LANA

55. Herriko lan sektore ezberdinak norbanako eta enpresen beharrak jasotzea.
56. Herriko komertzioaren egoerari buruz hausnartu eta ekintza plan bat osatzea.
57. Elikadura burujabetzaren bidean herrian zein eskualdean sortu daitezkeen aukeren bide-lagun izatea, Goizane Eraikina ere norabide horretan kokatuz.





HERRIGINTZAREN KULTURA

Euskara, Kultura, Kirola, Gazteria,
Hezkuntza, Auzolana eta Memoria

MISIOA/ERRONKA

Herrigintza mugimendu indartsua genueneko izpiritua berreskuratu eta gaur egunera ekartzea dugu erronka, bai herriari, baita gure nazioa den Euskal Herriari ekarpena egiteko ere.



PROIEKTUAK/EKIMENAK

EUSKARA

58. Euskara ardatz izanik, Euskararen Erabilera Plana osatu eta garatzea, bai udal barnean, baita herri mailan ere, herritar, eragile eta UEMArekin batera.
59. Euskara ikastaroak antolatu eta doakotasuna bermatzen/aldarrikatzen jarraitzea.
60. Euskara eta kulturartekotasuna uztartzeko lanean jarraitzea, zehar-lerrotasunez.
61. Euskararen sustapena helburu duten ekimenak babestea eta bultzatzea, Korrika, Euskaraldia edota antzeko ekimenak kasu.
62. Hirigintza Plan Orokorriari Eragin Linguistikoa-ren Azterketa egitea.

KULTURA

63. Herriko kultur eskaintza, sormen eta arte aukerak ugaritzea, herritar eta eragileekin elkarlanean.
64. Herriko Kultur eta Kirol eragileen mahaiarekin jarraitzea, koordinazioa, elkarlana eta herrigintza helburu.
65. Kultur eta Kirol taldeei udal diru-laguntzak ematen jarraitzea, baita azpiegiturak eta ekimenen antolaketarako baliabideak eskura jartzen ere.
66. Kultur azpiegituren antolaketa, erabilera eta hobekuntzak aztertu eta beharrei erantzutea: Gure Ametsako biltegia, Herri Antzokia, Karraene Kultur Etxea eta Kimuene Kulturgunea.
67. Musika Eskola zerbitzuaren eta ereduaren inguruko lanketa egitea, musika herritarren artean eta herrian zabaltzeko helburuz.

ARIKETA FISIKOA ETA KIROLA

68. Kirol eskaintza eta aukerak handitzea, herriko eragileekin elkarlanean eta kirol azpiegiturak hobetuz.

69. Luberriko kirol aretoan ariketa fisikorako gunea egokitzea.

70. Eskola Kirola programaren lanketan sakontzea herri eta eskualde mailan inplikaturako eragile guztiekin batera.

HEZKUNTZA ETA HERRI HEZITZAILEA

71. Haur eta gaztetxo enrealitate eta beharrak adatz, Zaldibia Herri Hezitzailea izateko lanean jarraitzea, horretarako eragile eta herritarren inplikazioa bilatuz.

72. Hezkuntza formalean eta ez-formalean ditugun enrealitateak eta erronkak aztertzea, Herri Hezitzaileen begiradatik.

73. Hezkuntzara bideratutako eraikinetan hobekuntzak egitea eta Hezkuntza komunitatea eta EJKo Hezkuntza Sailarekin batera lantzea Haurreskolari, Eskolako eraikinaren leku faltari eta jangela zerbitzuari erantzuna emango dion eraikinaren proiektua.

AISIALDIA ETA GAZTERIA

74. Aisialdi aukerak indartzea eragileekin batera, urtean zehar eta oporraldietan ere, bereziki nabarmenduz udako jarduerak.

75. Gaztetxoek herriarekin eta elkarren artean duten lotura indartzeko egitasmoei segida eman eta aukera berriak sortzea, beraiekin elkarlanean.

76. Herriko gazteen egoera, behar eta nahiak jostzeko eta erantzunak elkarrekin bilatzeko dinamika abiatzea, gazte norbanakoekin eta herrian ibilbide luzea duen Zaldibiko Gazte Asanbladarekin.

77. Mugikorren eta sare sozialen erabilera eta haren ondorioak ikusirik, lanketa abiatzea bidelagun ezberdinen artean.





JAIK ETA AUZOLANA

78. Herriko eta auzoetako jaiak antolatzen jarraitu, herritik eta herriarentzat, auzolana ardatz izanik.

79. Herrian auzolanak izan duen ibilbidea aztertu, beste herri batzuetako esperientziak ekarri eta Zaldibiako auzolan-ereduaz hausnarketa eta ekimena bultzatu, besteak beste, plazaren eraldaketan.

MEMORIA ETA SORKUNTZA

80. Herriko Memoria: gai ezberdinen inguruko memoriaren jasoketa, lanketa eta komunikazioan sakondu edota abiatu herritar, eragile eta adituekin batera: Zaldibia, uraren indarra, Ausagatzelu, Zaldibiako ondare immateriala...

81. Liburutegiaren dinamizazioan eragin, zerbitzu soiletik harago, jakintza elkar-banatzeko eta ahozotasuna lantzeko gune izatera. Antolaketa eta espazioan gune eta eskaintza berriak sortu.

82. Irakurzaletasuna sustatzeko ekimenak antolatu eta bultzatu, bereziki euskarazko sorkuntza.



4.

ANTOLAKUNTZA: UDALGINTZA HERRIGILEA eta SARE-LANA

Udal egituraketa, Aurrekontua, Plangintza,
Komunikazioa, Herritar eta Eragile Sarea

MISIOA/ERRONKA

Hiru eremuetan lan egin eta helburuak lortzera begirako antolaketa osatuko da. Kooperazioa eta elkarlana ardatz izango dituen egituraketa da, udalgintza herrigilea egitea helburu duena.

Zer da udalgintza herrigilea? Udala, herriaren eraldaketarako tresnetako bat izanik, lan egiteko modu jakina duena, ezberdinen arteko kooperazioan oinarritua eta herria eta herritarrak ahalduntzea xede duena.

PROIEKTUAK/EKIMENAK

UDAL EGITURAKETA

83. Udal sailen koordinaziorako mahaiarekin jarraitu, asteroko bilera operatiboak eginez.

84. Urteko kudeaketa plana osatzeko metodologia xtertatu.

85. Herritarren eskaeren jarraipena egiteko sistema osatu eta espedienteen kudeaketarako programa informatikoa hobetu.

86. Udal langilegoaren azterketa eta planifikazioa egin, herriak egun dituen eta etorkizunean izan ditzakeen beharretara egokituta.

87. Udal lanpostuak egonkortzeko prozesuekin jarraitzea, langileen lan-baldintzak eta udalaren jarduna hobetuz.

88. Zehar-lerrotasunez eta talde-lanean aritzea sustatu, horretarako guneak, baliabideak eta formakuntza eskainiz.

AURREKONTUA

89. Udalaren finantzazioa aztertu, diru-sarrera eta gastuen azterketa eginez.

90. Diru-laguntza deialdietarako proiektuak prest izan.

91. Erakunde publiko ezberdinetara jo finantzazio aukera bila.

92. Udal aurrekontua gardentasunez azaltzeko euskarriak argitaratu.

KOMUNIKAZIOA

93. Udalaren webguneko edukiak eguneratu eta osatzen jarraitu.

94. Gardentasunaren ataria eta bulego elektronikoa hobetu eta osatu.

95. Udalaren eta herritarren arteko gertutasuna elikatzen jarraitu, aurrez aurre zein digitalean.

96. Komunikazio eraginkorrerako estrategiak diseinatu, herritarren aniztasuna aintzat hartuta.

97. Herritarrek parte hartzeko duten eskubidea baliatu dezaten, hartarako dauden bideen berri eman.

HERRITAR ETA ERAGILE SAREA

98. Udalgintza herrigilearen inguruko formakuntza eta esperientziak eskaini.

99. Herritar kolektiboen zein herriko eragileen eskaera, behar eta erronken jabe izan, elkarlan puntuak aurkitzeko.

100. Erronka hauetakoren baten edo gehiagoren alde lan egiteko prest dauden herritar eta eragileak identifikatu, sarera lotu eta aktibatu.

*Herri
Biziazamia*

Herri antolamendua
Mugikortasuna,
Energia, Elikadura,
Lana, Zerbitzuak,
Ingurumena,
Etxebizitza

*Herrigintza
Kultura*

Euskara, Kultura,
Kirola, Gazteria,
Hezkuntza,
Auzolana, Memoria

IZENA EMAN SARETU DEZAGUN HERRIA

*Zaintza
Komunitatea*

Berdintasuna,
Aniztasuna, Zaintza,
Ongizatea,
Herritarrak



ZALDIBIAKO
UDALA

Gobernu-planeko arlo orokor edo proiektu/helburu zehatzen batean zure ekarpena egiteko prest bazaude edota informatuta egon nahi baduzu, **eman izena!**



Sartu Qr-aren loturan online izena emateko edo jo Udaletxera edota Kultur Etxera.